



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Etxebizitza eskuratzeko familia- laguntza

EUSKADI 2025

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Argitaraldia: 1.a, 2025eko abendua

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren saila

Egilea:
Gazteen Euskal Behatokia

Itzulpena, diseinua eta maketazioa:
Gazteen Euskal Behatokia





Edukiak

- Helburua eta metodologia
- Aurrekariak
- Etxebizitza eskuratzeko dohaintzak. Dohaintzak eta emantzipazioa
- Etxebizitza eskuratzeko familia-mailegua. Familia-mailegua eta emantzipazioa
- Etxebizitza eskuratzeko familia-laguntzaren bat jaso duten gazteak: dohaintzak edo maileguak
- Familia-laguntzari buruzko iritziak
- Familiaren laguntzari buruzko bat-bateko iruzkinak
- Ondorioak

Helburua eta metodologia

Ikerketaren helburua:

Euskadiko gazteek etxebizitza eskuratzeko arloan, familia-laguntza zer neurritan dagoen zabaldua aztertzea, bai eta familia-laguntzak emantzipazioan zer eragin duen ikustea ere. Familia-laguntza gisa, senideen dohaintzak eta maileguak hartu dira kontuan.

Metodologia:

2025eko urrian bildutako datuak, Euskadiko 18 eta 34 urte bitarteko 2.741 gazteri egindako telefono bidezko elkarrizketak eta online galdetegi auto-administratua uztartzen dituen inkesta baten bidez.

Datuen analisia:

Sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera haztatutako datuak. Ikerketaren diseinuak eta analisiak emaitza esanguratsuak eta fidagarriak bermatzen dituzte, $\pm$ % 1,9ko errore-marjinarekin.

Ikerketaren diseinua, analisia eta emaitzen sintesia :

Gazteen Euskal Behatokia



GAZTEAK, EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA-PREMIA EUSKADIN



Aurrekariak

Gazteen Euskal Behatokiak hainbat txosten argitaratu ditu, Etxebizitza Behar eta Eskariari buruzko Inkestan (EBEI) gazteek eman dituzten erantzunak aztertu ondoren. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak bi urtean behin egiten du inkesta hori.

2023ko edizioan, Euskadin etxebizitza-beharra eta diru-sarrera propioak zituzten 18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabeko pertsonen % 32,6k adierazi zuen bere lehen etxebizitza erosteko gastuei edo alokatzeko hasierako gastuei (fidantza, abalak, higiezin agentziaren ordainsariak, etab.) aurre egiteko senideen laguntzara jotzeko asmoa zuela.

Gainera, % 64,6k gastu horiek beren aurrezkiekin finantzatzea pentsatzen zuen, eta beste % 64,4k erabakita zuen kreditu bat eskatzea. % 9,5ek laguntza publikoak eskatzeko asmoa zuen.

Adierazi behar da aipatutako baliabide horiek ez direla baztertzaileak, hau da, pertsona berak bide desberdinak pentsa ditzake etorkizuneko etxebizitza ordaintzeko gastuei aurre egiteko.

[Gazteen_Behatokia_Etxebizitza_EBEI_EU-.pdf](#)

Etxebizitza eskuratzeko dohaintzak

Euskadiko 18 eta 34 urte bitarteko hamar pertsonatik batek etxebizitza bat edo etxebizitza erosteko edo alokatzeko dirua jaso du dohaintzan (% 9,8).

Klase sozialak gora egin ahala, dohaintzak ugartu egiten dira (%14,6, beren burua klase sozial altu edo ertain-altukotzat jotzen dutenen artean, klase baxu edo ertain-baxukoen artean halako bi (%7,0).

Eta adinak gora egin ahala, dohaintzek ere gora egiten dute (30-34 urte bitartekoen %17,5ek jaso dute baten bat, eta 30 urtetik beherakoen kasuan %6,9k).

Euskadin jaiotakoek atzerrian jaiotakoek baino dohaintza gehiago jaso dituzte (%10,4 eta %3,0, hurrenez hurren).

Emantzipatutako gazteen artean, %18,1ek emantzipatzeko dohaintzen bat jaso du.

Dohaintza gehienak diruzkoak dira.

Gazteen %1,6k etxebizitza bat jaso du, %8,0k etxebizitza erosteko edo alokatzeko dirua eta %0,2k biak, etxebizitza eta dirua.

Dohaintzak, gehienbat, gurasoengandik datoz.

Dohaintzen bat jaso duten gazteen % 80,1ek gurasoengandik jaso du; % 11,6k, aitona-amonengandik; % 10,0k, familiako beste pertsona batengandik; eta % 6,1ek, ahaidetasunik ez duen batengandik. Esan beharra dago gazte batek jatorri bat baino gehiagoko dohaintzak jaso ditzakeela.





Dohaintzak eta emantzipazioa

Dohaintza jaso duten gazteen % 65,9k adierazi du donazio horrek asko erraztu duela (edo erraztu dezakeela) bere emantzipazioa.

Beste % 21,1ek adierazi du nahikoa erraztu duela edo erraztu dezakeela emantzipaziorako bidea.

Dohaintza bat jaso duten hiru gaztetik bi emantzipatuta daude (% 68,5).

Eta donazio bat jaso duten emantzipatutako gazteen artean, ia launik hiruk (% 72,7) adierazi dute donazio horrek asko erraztu ziela emantzipazio prozesua.

Etxebizitza eskuratzeko familia-mailegua

Euskadiko 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 12,1ek mailegu pertsonalen bat jaso du senideengandik, etxebizitza erosteko edo alokatzeko.

30 eta 34 urte bitarteko gazteen %22,2k senideen maileguren bat jaso dute etxebizitza erosteko edo alokatzeko; 30 urtetik beherakoen kasuan, %8,1ek.

Beren burua klase sozial altu edo ertain-altukotzat duten gazteek senideen mailegu gehiago jaso dituzte (%16,0) klase baxu edo ertain-baxukoekin alderatuta (%10,4).

Jatorriaren arabera alde nagusia maileguaren helburuan datza: atzerrian jaiotako gazteek etxebizitza erosteko mailegu gutxiago jaso dituzte Euskadin jaiotakoek baino (%4,4 eta %9,9, hurrenez hurren), baina, aldiz, alokairua ordaintzeko mailegu gehiago (%5,5 eta %2,4).

Emantzipatutako gazteen %21,1ek senideek egindako maileguren bat jaso du emantzipatzeko.

Mailegu gehienak gurasoek egiten dituzte.

Etxebizitza bat erosteko edo alokatzeko mailegu pertsonalen bat jaso duten gazteen %68,9k gurasoengandik jaso dute; %9,1ek, aitona-amonengandik; %16,1ek, beste senide batzuengandik; eta %7,3k, ahaidetasun-loturarik ez duten hurbileko pertsonengandik. Esan beharra dago gazte batek pertsona baten baino gehiagoren maileguak jaso ahal izan dituela.





Etxebizitza erosteko familia-mailegua

Senideek egindako mailegu gehienak etxebizitza erosteko dira.

Gazteen %9,3k mailegu bat jaso du senideen aldetik etxebizitza bat erosteko eta %2,8k alokairua ordaintzeko.

Etxebizitza erosteko mailegu horietako gehienek etxebizitzaren balioaren erdia baino gutxiago ordaintzeko balio dute.

- Senideengandik etxebizitza erosteko maileguren bat jaso duten gazteen %49,6k adierazi du mailegu horrek etxebizitzaren balioaren %25 baino gutxiago estaltzen zuela.
- Beste %22,7k adierazi du maileguak etxebizitzaren balioaren %25 eta %50 artean estaltzen zuela.
- %15,6k dio etxebizitzaren balioaren %50 baino gehiago estaltzen zuela.
- Eta %3,5i etxebizitzaren balioaren %100 estaltzen zion.
- Gainerako %8,6ak ez du erantzun.

Familia-mailegua eta emantzipazioa

Etxebizitza erosteko edo alokatzeko senideengandik mailegua jaso duten gazteen % 54,1ek adierazi du mailegu horrek asko erraztu duela (edo erraztu dezakeela) bere emantzipazioa.

Beste % 28,6k adierazi du emantzipatzeko erraztasun nahikoak eman dizkiola edo eman diezazkiokeela.

Etxebizitza erosteko edo alokatzeko senideek egindako mailegua jaso duten hiru gaztetik bi emantzipatuta daude (%65,0).

Senideen mailegua jaso duten emantzipatutako gazteen % 58,9k adierazi du mailegu horrek asko erraztu ziola emantzipazio prozesua.





Etxebizitza eskuratzeko familia-laguntzaren bat jaso duten gazteak: dohaintzak edo maileguak

Ikerketa honetan, familia-laguntzatzat senideek gazteei etxebizitza bat eskuratzearrazteko ematen dieten laguntza hartzen dugu, dela dohaintzen bidez, dela maileguen bidez.

Senideengandik mailegu bat edo dohaintza bat jaso dutela dioten gazteak kontuan hartzen baditugu, ikusten dugu Euskadiko 18-34 urteko gazteen %18,1ek jaso duela familiaren laguntzaren bat etxebizitza bat eskuratzeko, 65.000 gazte inguruk.

Laguntza horiek ez dira baztertzailak, pertsona berak maileguak eta dohaintzak jaso ditzake (izan ere, gazteen %3,9k bi laguntza motak jaso ditu).

- Gazteen %1,8ak etxebizitza bat jaso du dohaintzan.
- %8,2k etxebizitza erosteko edo alokatzeko diru-dohaintza jaso du.
- %9,3k etxebizitza erosteko senideek egindako mailegu bat jaso du.
- %2,8k senideen mailegu bat jaso du alokairua ordaintzeko.

Nork jaso du familiaren laguntza gehiago etxebizitza bat eskuratzeko?

Adinak eta klase sozialak gora egin ahala, familiaren laguntza handitu egiten da.

30-34 urteko gazteen % 31,5ek mailegu edo dohaintzaren bat jaso du senideengandik; 25 urtetik beherakoen artean, % 10,0ek.

Beren burua klase altu edo ertain-altukotzat jotzen dutenen %25,9k jaso du familiaren laguntzaren bat etxebizitza bat eskuratzeko; klase baxu edo ertain-baxuko gazteen artean, %14,6k.

Euskadin jaiotakoek atzerrian jaiotakoek baino senideen laguntza gehiago jaso dute etxebizitza eskuratzeko (% 18,7 eta % 12,1, hurrenez hurren), baina alde hori ez da adinari edo gizarte-klaseari dagokiena bezain nabarmena.

Emakume eta gizon gazteen artean ez da desberdintasunik ikusten.

Emantzipatutako hiru pertsonatik batek (%32,0) familia-laguntzaren bat jaso du.





Familia-laguntzari buruzko iritziak

Gazteen % 36,5ek uste du gurasoen betebeharra dela seme-alabei ahalik eta laguntza ekonomiko handiena ematea.

Gehiengoa dira, nolanahi ere, ideia horrekiko desadostasuna adierazi duten 18-34 urteko gazteak (%58,5).

Gizon gazteek emakume gazteek baino neurri handiagoan uste dute gurasoen betebeharra dela seme-alabei ahalik eta gehien laguntzea (gizonen % 41,5 eta emakumeen % 31,0 bat datoz ideia horrekin).

Adinean aurrera egin ahala, behera egiten du iritzi hori duten gazteen ehunekoak (25 urtetik beherakoak artean % 50,2 dira, 25-29 urtekoen artean % 29,0k deritzote hori eta 30-34 urtekoen artean % 23,4k).

Lau gaztetik hiruk (%73,3) nahiago lituzkete laguntza publikoak senideen dohaintzak baino.

Gizarte-klaseak behera egin ahala, gora egiten du laguntza publikoak nahiago dituztenen ehunekoak (%76,4k beren burua klase baxu edo ertain-baxukotzat dutenen artean, eta %66,5ek beren burua klase altu edo ertain-altukotzat dutenen artean).

Diru-laguntza publikoak batez beste baino gehiago lehenesten dituzte etxebizitza- edo diru-dohaintzen bat jaso dutenek (horien artean %80,4k), bai eta etxebizitza erosteko edo alokatzeko senideen maileguren bat jaso dutenek ere (%79,9k).

Familiaren laguntzari buruzko bat-bateko iruzkinak (I)

Gazteak eskertuta daude familiaren laguntzagatik, eta uste dute hori gabe, kasu askotan, emantzipazioa bideraezina izango litzatekeela.

“Gurasoen laguntza beti da eskertzekoa; tamalez, gaur egun, haien laguntzarik gabe gazteriaren kantitate handi batek ezingo luke etxebizitzarik erosi edo beren kabuz bizitzera joan.” (Emakumea, 32 urte, gaur egun beste autonomia-erkidego batean bizitzen)

“En mi caso, estoy de alquiler y sí recibo ayudas. Y cuando pueda permitirme un piso, es muy probable que necesite ayuda económica de mi familia. En mi círculo, no conozco a casi nadie que, aun llevando años trabajando, pueda hacer frente a un piso el/ella solo/a.” (Emakumea, 29 urte, Bizkaia)

“Idealmente la familia no tendría por qué tener que apoyar económicamente a sus hijos, pero los que pueden lo hacen porque es la única vía que tienen muchos jóvenes de acceder a su primera vivienda.” (Emakumea, 26 urte, Bizkaia)





Familiaren laguntzari buruzko bat-bateko iruzkinak (II)

Baina adierazi dute emantzipazioaren arazoari irtenbidea ez zaiola familietatik edo laguntza publikoetatik etorri behar, baizik eta beren kabuz emantzipatzeko aukera emango dien soldatetatik eta etxebizitza-merkatutik

“Ez dugu diru-laguntzarik nahi, baizik eta gure soldata duin batekin alokairu bat ordaintzeko aukera eduki.” (Gizona, 27 urte, Araba)

“Diru-laguntzak baino, etxebizitzetan behar duguna da prezioak jaistea; guztiz desproporzionalak dira prezioak jendeak dituen soldatekin. Ez baduzu gurasoen laguntza jasotzen oso zaila da pisu xume bat sikiera erostea.” (Emakumea, 33 urte, Gipuzkoa)

“Lo adecuado sería tener un sueldo adecuado al precio de la vida y no depender ni del dinero de familiares ni de ninguna ayuda pública ni de ningún tipo.” (Emakumea, 32 urte, Bizkaia)

Ondorioak

Familia-laguntza **emantzipatzeko etxebizitza bat eskuratzen denean ematen da**, normalean, 30 eta 34 urte bitartean.

Laguntza, nagusiki, **dirua emanez** gauzatzen da, dohaintzan edo mailegu baten bidez.

Laguntza hori, normalean, **gurasoek ematen dute**.

Zenbat eta klase sozial altuagoa eta, beraz, egoera ekonomiko hobea izan, orduan eta laguntza handiagoa ematen zaie seme-alabei emantzipatzeko.

Familiaren laguntza jaso duten gazte gehienek aitortzen dute **laguntza horrek bere emantzipazioa erraztu duela**.

Emantzipatutako hiru gaztetik batek emantzipatzeko familiaren laguntzaren bat jaso duela adierazi du.

Baina gazteek adierazten dute **nahiago lituzketela laguntza publikoak**, familiakoenak baino; eta, batez ere, laguntzetara jo beharrik gabe, emantzipazioa errazten duen lan-merkatua eta higiezinaren merkatua nahiago lituzkete.



